

ZINEBI63

Bilboko Dokumentalen eta Film
Laburren Nazioarteko Jaialdia
International Festival of Documentary
and Short Film of Bilbao
Festival Internacional de Cine
Documental y Cortometraje de Bilbao

Aza. 12 – 19 Nov.

2021



Euskera

Bilbao

Babesleak / Sponsors / Patrocinadores



zinebi.eus #zinebi63
#BilbaoUdazkena2021

ZINEBI63

Bilboko Dokumentalen eta Film
Laburren Nazioarteko Jaialdia
International Festival of Documentary
and Short Film of Bilbao
Festival Internacional de Cine
Documental y Cortometraje de Bilbao

Aza. 12 – 19 Nov.

2021

Bilbao

Jarrai gaitzazu eta kontatu zure istorioa!
Follow us and share your story!

Zabalgune Plaza, 11, 1go solairua
48001 - BILBO

+34 94 424 86 98
info@zinebi.eus

 zinebifestival
 zinebifilmfest

 @zinebiFEST
 Zinebi Bilbao

www.zinebi.eus

Zinebi 63

2021eko Azaroaren 12 - 19

www.zinebi.eus

#zinebi63

#BilbaoUdazkena2021

Aurkibidea

Hitzaurrea	4
Zinebi 63ri buruzko kontsiderazio orokorrak	4
1. Zinebi 63ren irudia	6
2. Ohorezko Mikeldia	
Margarethe von Trotta	7
Imanol Uribe	8
3. Sariak	9
4. Epaimahaiak	9
5. Sail Ofiziala – Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa	11
6. Sail Ofiziala – ZIFF – Zinebi First Film	15
7. Beste sailak	
Beautiful docs. Munduko dokumentalen panorama	16
Bertoko begiradak. Miradas desde euskadi	18
8. Focus: Mexiko, Emakumea eta Jatorrizko Zinemak	21
9. Emanaldi bereziak	22
10. Zinebi Meetings	23
11. Industry	24
12. Egoitzak	25

Hitzaurrea

ZINEBI, Estatuko hirugarren zinemaldirik zaharrena, A Klaseko nazioarteko jaialdi bakarra da dokumental eta film laburren kategorian. Horixe akreditatu du 1974tik, eta etenik gabe, Film Ekoizleen Nazioarteko Federazioak (FIAPF).

Hollywoodeko Akademiak Oscar® sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa ematen duen akreditazioa du. Horrek esan nahi du Hollywoodeko Arte eta Zientzia Zinematografikoen Akademiako Hautaketa Batzordeak automatikoki hartuko dituela aintzat Oscar® sarietako hautagaitzetarako ZINEBI Sari Nagusia irabazten duen film laburra eta Film Labur Dokumental Onenaren Mikeldi sariaren irabazlea.

Gainera, aurtendik aurrera, ZINEBI da Estatuko zinemaldi bakarra —munduko 24 jaialdietako bat— EFA (European Film Awards) sarietarako hautagai den film labur bat aukeratzen. Horrek esan nahi du Nazioarteko Epaimahaiak Europako fillm labur bat aukeratuko duela ZINEBI 63ko Sail Ofizialetako Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan egon diren film laburren artean, 2022ko Europako Film Labur Onenaren Sarirako hautagai izateko.

Halaber, ZINEBI akredituta dago BAFTA sarietarako (ekoizpen britainarra duten film laburretarako) eta Goya sarietarako kalifikatzaile gisa.

ZINEBIren proiektzioak bi ataletan multzokatzen dira: Sail ofiziala eta bestelako proiektzioak.

Lehenengoan, FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA eta ZIFF – ZINEBI FIRST FILM NAZIOARTEKO LEHIAKETA sartzen dira, azken horren izenak adierazten duen bezala, zuzendari berrien lehen film luzeentzat da.

Bigarrenengan sartzen dira: BEAUTIFUL DOCS – MUNDUKO DOKUMENTALEN PANORAMA saila, dokumentalaren nazioarteko panoraman gertatzen dena islatzen duen saila, lehiarik gabeko erakusketa dena; BERTOKO BEGIRADAK, Euskadin ekoiztako film labur eta luzeek osatzen dutena, eta euskal ikus-entzunezko industriako ekoizle, zinemagile eta profesionalen lana aintzatezteko xedea duena; Jaialdiaren Ohorezko Mikeldi saridunen lanen zati bat berreskuratzeko emanaldi bereziak eta, amaitzeko, aurreko taldeetan sartzen ez diren beste proiektzio batzuk.

Aurten ere, ZINEBI jaialdi hibridoa izango da. 63. edizioan, 2020an bezala, Bilbon zuzenean egingo diren emanaldiez gain, film luze eta labur batzuk online eskainiko dira FILMIN plataformaren bidez. *Online* egiten diren proiektzioen edukien osotasuna, proiektzio-kalitatea eta segurtasuna bermatuko da, kalitate handiko tresna eta zerbitzuen bidez; proiektzio presentzialak, beti bezala, aretoetan egingo dira, eta Nazioarteko Epaimahaietako kideak bertan izango dira.

Zinebi 63ri buruzko kontsiderazio orokorrak

- 41 herrialdetako 123 film egongo dira jaialdiaren aurtengo edizioan: 87 film labur, film ertain bat eta 35 film luze.
- 45 film euskal ekoizpenak dira: 34 film labur, film ertain bat, eta 10 film luze.
- Programatutako filmen % 50 baino gehiago emakumeek zuzendu dituzte.
- Programazioaren % 50 baino gehiago Estatu mailako estreinaldiak dira.
- Sail Ofizialean - Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan 55 film lehiatuko dira. Horien artean, 55 estatu mailako estreinaldiak dira.
- Sail Ofizialean - ZIFF – ZINEBI First Film Nazioarteko Lehiaketan *opera prima* diren 9 film luze hartuko dute parte, aurten ekoitzi eta aurretik estatuan eman ez direnek.

- **Beautiful Docs** – Munduko Dokumentalen Panoraman, hainbat zinemagile ospetsuren lan berriak nabarmentzen dira; horien artean ditugu **Jean-Gabriel PÉRIOT**, **Sergei LOZNITSA**, 2017ko ZINEBIren Ohorezko Mikeldi sariaren irabazle **Marco BELLOCCHIO** eta 2018ko ZINEBIren Ohorezko Mikeldi sariaren irabazle **Mariano LLINÁS**.
- ZINEBIk, OHOREZKO MIKELDI sarien bidez, aitortza bat egiten die gaur egungo nazioarteko zinemako izen nagusien ibilbideari eta dimentsio artistikoari Aurtengo lehen saria **Margarethe VON TROTTA** alemaniar aktoreak, gidoigileak eta zuzendariak jasoko du, haren zinemaren indarra eta zintzotasunagatik, eta hasiera-hasieratik, Zinema Aleman Berriaren ahots femenino gisa, distira handiz jakin duelako bere obran emakumeen ahalduntzea islatzen 68ko iraultzaren ondorengo europar gizartean, Zinemaren Historian gehien eragin duen zinemagile feministetako bat izatera iristeraino.
- Bigarren OHOREZKO MIKELDI sariak ZINEBIk bereziki maite duen eta hasieratik jaialdiari lotuta egon den zinemagile baten ibilbidea aitortuko du. **Imanol URIBE** zuzendaria —jaialdian bi sari irabazi dituena *Ez* (1977) eta *Ikuska 13: Euskal Kantagintza* (1982) film laburrei esker— funtsezko begirada zinematografiko bat da, trantsizioaren euskal gizartean. Haren ibilbide profesionalaren mende erdian, Goya sariak eskuratu ditu, eta nazioarteko aitortzak jaso ditu lehen mailako jaialdietan, hala nola Donostian, Berlinen eta Montrealen. Hala, oinarritzko zinemagiletako bat da, XX. mendearen bigarren erdialdeko Espainiako zinematografian.
- Aurtengo edizioaren erronka nagusietako bat ZINEBIk Euskadin egindako ekoizpenei ematen dien babesa indartzea izango da. Hala, **Bertoko Begiradak** sailean, aurtun 20 film labur eta 10 film luze izango dira ikusgai. Modu osagarrian, *Itxitik* ekimenerako ekoiztutako zazpi film laburretatik bost gehitu behar dira. Ekimena Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Zineuskadik, EITBk, Donostiako Zinemaldiak eta ZINEBIk sustatzen dute, COVID-19ak eragindako osasun krisialditik eratorritako konfinamenduaren gaia aztertzeko eta Euskadin ikus-entzunezkoen jarduerara bultzatzeko.
- Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE-APV) eta ZINEBIk antolatuta eta Euskal Telebistaren (ETB), Europa Creativa MEDIA Desk Euskadiren eta Zineuskadiren lankidetzaz, **ZINEBI NETWORKING** Bilboko Zinema Dokumentalaren Foro Profesionalaren beste edizio bat egingo da, laugarrena jada (bertan, film dokumental luze baterako proiektu batek 10.000 euroko sari bat eskuratuko du).
- Era berean, Europa Creativa MEDIA Desk Euskadiren lankidetzaz, ZINEBIk zinema dokumentalari buruzko jaialdien **Europako topaketa** bat antolatzen du, eta bertan hainbat lehiaketatako ordezkariak izango dira, hala nola Cinéma du Réel (Paris, Frantzia), Doclisboa (Lisboa, Portugal), Ji.hlava IDFF (Jihlava, Txekiar Errepublika), DOK.Leipzig (Alemania) eta FIPADOC (Biarritz).
- ZINEBIk Peloponesoko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiarekin (Grezia) duen lankidetzari esker, orain dela gutxi ekoitzi eta estatuan estreinatu ez diren Greziako hiru film luze ikusi ahal izango dira, ZINEBIren online bertsioaren bidez, FILMINen.
- **Enrique URBIZU** zinemagile bilbotarrak **Carlos Alberto GÓMEZ**ekin batera idatzi duen *La caja de madera: Estudios sobre puesta en escena cinematográfica* liburua aurkeztuko du, Bilbon. Liburua ECAMEk eta DAMAk argitaratu dute, *Caimán. Cuadernos de Cine* aldizkari espezializatuaren lankidetzaz.
- **Vulk** post-punk talde bilbotarrak esperientzia paregabea eskainiko du, BBK aretoan: **VULK EZ DA**. Ikuskizun horretan ohiko zuzeneko emanaldi bat ematearen eta hura ikus-entzunezko pieza batean sartzearen arteko mugak desagertuko dira, pieza horretan aurretik erregistratutako materiala ere sartuta.

2. Ohorezko Mikeldia

ZINEBI 63ko inaugurazio eta amaiera galetan nazioarteko zinemaren izen handiak izango ditugu Arriaga Antzokian edizio honetako Ohorezko Mikeldiak jasotzeko, beren lanaren garrantzi artistikoaren eta obraren garrantziaren aitortza jasotzeko.

Margarethe von Trotta

© Alexander Vejnovic



ZINEBI – Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak erabaki du 63. edizioaren lehen Ohorezko Mikeldi saria **Margarethe von Trotta** berlindar aktoreari, gidoigileari eta zuzendariari ematea, haren zinemaren indarra eta zintotasunagatik, eta hasiera-hasieratik, Zinema Aleman Berriaren ahots femenino gisa, distira handiz jakin duelako bere obran emakumeen ahalduntzea islatzen 68ko iraultzaren ondorengo europar gizartean, Zinemaren Historian gehien eragin duen zinemagile feministetako bat izatera iristeraino.

Besteak beste, Rainer Werner Fassbinder eta Volker Schlöndorff zinemagileen aginduetara aktore lanak egin ondoren, Von Trottak zuzendari gisa osatu duen curriculum luzean nabarmentzekoak dira Veneziako Jaialdian *Las hermanas alemanas* (*Die bleierne Zeit*, 1981) filmarekin lortutako Urrezko Lehoa eta kritikaren saria, baita Europako film onenari emandako David di Donatello italiar saria ere, lehendabizi, 1982an *Die bleierne Zeit* lanagatik, eta gero, 2004an *Rosentrasse* filmagatik. Horrez gain, 70eko hamarkadaren amaieratik, haren film luzeak behin eta berriro lehiatu dira Cannesko, Chicagoko edo Montrealeko jaialdietan, eta haren ibilbide zinematografikoak hainbat aitortza jaso ditu; izan ere, ohorezko sariak jaso ditu Gotenburgoko, Tellurideko edo Valladolideko jaialdietan, besteak beste, baita Lola – German Film Award saria ere, 2019an.

Zuzendari gisa Volker Schlöndorff-ekin batera debutatu zuen Heinrich Böllen *Katharina Blumen ohore galdua* (*Die Verlorene Ehre der Katharina Blum*, 1975) eleberriaren egokitzapenarekin, eta orduraz geroztik, haren ibilbidea mundu osoko emakume zinemagileen eredu izan da, film askok nazioartean izandako oihartzunari esker, hala nola *El segundo despertar de Christa Klages* (*Das zweite Erwachen der Christa Klages*, 1978), *Hermanas, o el equilibrio de la felicidad* (*Schwwestern oder Die Balance des Glücks*, 1979), *Locura de mujer* (*Heller Wahn*, 1983) eta *Rosa Luxemburgo* (*Rosa Luxemburg*, 1986). Film horiek guztiek aitortzak jaso dituzte mundu osoko jaialdietan, eta haietan Alemaniako zinemaren aktore ahaztezinak dira protagonista, esate baterako, 2003ko ZINEBIren Ohorezko Mikeldi saria jaso zuen Hanna Schygulla, Angela Winkler, Barbara Sukowa eta hil berri den Jutta Lampe.

Haren filmen protagonista diren aktore handien zerrenda are gehiago luza daiteke; hor ditugu, adibidez, Fanny Ardant —*Amor y deseos* (*Fuerchten und Lieben*, 1988) filmaren protagonista Valeria Golino eta Greta Scacchirekin batera— Stefania Sandrelli —*L'afriicana* (1990)—, Carla Gravina —*Il lungo silenzio* (1993)— eta Katja Riemann —Veneziako Jaialdian Volpi garaikurra eskuratu zuena *Rosentrasse* (2003) filmean egindako interpretazioagatik, eta berriro harekin lan egin duena *Soy la otra* (*Ich bin die Andere*, 2006) eta *Olvidate de Nick* (*Forget About Nick*, 2017) lanetan—.

Haren azken film luzea dokumental bat da, *Entendiendo a Ingmar Bergman* (*Auf der Suche nach Ingmar Bergman*, Felix Moeller & Bettina Böhrer-ekin batera zuzendutakoa, 2018) izenekoa, eta ZINEBIIn eman zen orain dela hiru urte. Gaur egun, hurrengo filma prestatzen ari da, eta haren behin-behineko izenburua *Bachmann & Frisch* da.

Zinemagileari eginiko omenaldi gisa, ZINEBI 63k —Goethe Institut-en lankidetzaz— Topaketa bat antolatuko du Margarethe von Trotteren eta Bilboko publikoaren artean, azaroaren 13an, Bilboko Arte Ederren museoan, eta moderatzailea Helena Taberna zinemagile nafarra izango da. Saio berean haren film sarituena ikusi ahal izango da, aurtun estreinatu zenetik lau hamarkada betetzen direnean: *Las hermanas alemanas* (*Die bleierne Zeit*, 1981).

Margarethe von Trotta hilaren 12an, ostiralean, ZINEBIren 63. edizioaren inaugurazio galan jasoko du Ohorezko Mikeldi garaikurra.

Imanol Uribe



ZINEBIren edizio honetako bigarren Ohorezko Mikeldi saria azken mende erdi honetan Euskadiko nahiz Estatuko zinemagintzaren panoraman erreferente eztaba daezin bihurtu den gizon bati emango diogu. Zuzendari, gidoilari eta ekoizle gisa egindako lanak errekonozimendu ugari jaso ditu hainbat jaialditan, hala nola Donostian, Berlinen, Biarritzen, Orleansen edo Punta del Esten, besteak beste, eta ZINEBIren historiarekin lotura estu-estua izan du duela lau hamarkadatik baino gehiagotik.

Haren belaunaldiko beste zinemagile askoren kasuan bezalaxe, Imanol Uriberen ibilbidea film laburrekin hasi zen eta, garai bereko beste kide ugariaren antzera, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkadaren hasieran kontzientziazio politikorako zinema izan zen ibilbidea egiten hasteko oinarrietako bat. Uriberen filmografiako lehen aldi horretako joera sozio-politikoaren ekarpen garrantzitsuenak *El proceso de Burgos* dokumentala (1979) eta *La fuga de Segovia* (1981) fikzioa izan ziren.

Alabaina, horren aurretik ere garaian garaiko gai nabarmenak hautatu izan zituen film laburrak grabatzeko, hala nola klandestinitateari buruzko *Off* (1972) film laburra, Héctor Alterio eta Mari Paz Ballesteros protagonistak izanik, edo *Ez* (1976) dokumentala, Lemoizko zentral nuklearra eraikitzearen aurkako borrokaren une jakin bati buruzkoa; hain zuzen ere, Mario Onaindiaren hitzetan, “erakunde terroristen interferentzia” oraindik ere gertatu ez zen unea eta, beraz, proiektu horren aurkako oposizioa, une hartan, “herritarrak mobilizatzeko arrazoi alai eta itxaropentsua zen, arrisku nuklearrari aurre egitearren”. Ekoizpen-lanak Zeppo Films Uriberen beraren enpresak egin zituen, eta *Ez* filmarekin Zilarrezko Mikeldia lortu zuen ZINEBI 1977. urtean.

Bilbon sari gehiago ere eskuratu zituen; izan ere, *Ikuska 13: Euskal kantagintza berria* (1982) lanak aipamen berezia lortu baitzuen Euskal Zinemaren sekzioan, 1983ko jaialdian.

La muerte de Mikel (1983) filma grabatu ostean eta, batik bat, Madrilera bizitzera joan zenez geroztik, Espainiako zinemako zuzendari ospetsuenetako bat izatera iritsi da Uribe. Bere ibilbide profesional osoan sari ugari jaso ditu, hala nola zuzendari onenaren eta egokitutako gidoi onenaren Goya sariak *Días contados* (1994) lanarengatik, edo Donostia Zinemaldiaren Urrezko Maskorra *Bwana* (1996) filmarengatik; horietaz gain, Estatuko ikus-entzunezko industriarako funtsezkoak diren beste hainbat lan ere nabarmendu behar dira: *El rey pasmado* (1991), *Plenilunio* (2000), *El viaje de Carol* (2002) edo *La carta esférica* (2007).

Montrealgo Jaialdian Epaimahaiaren Sari Nagusia eskuratu zuen *Miel de naranjas* (2012) filmarekin, eta astia izan zuen ZINEBIra itzuli eta jaialdi baten ekoizpenean zuzendarikide izateko Pedro Olea, Javier Rebollo, Enrique Urbizu, Luis Marías, Alaitz Arenzana, María Ibarretxe eta Mikel Ruedarekin batera, *Bilbao-Bizkaia Ext: . Día* (2015) jaialdian, hain zuzen.

Orain, *Llegaron de noche* (2022) film luzea estreinatzeko zorian dago; espainiar-kolonbiar koprodukzio honen protagonistak Juana Acosta, Karra Elejalde eta Carmelo Gómez dira, eta datozen hilabeteotan iritsiko da zinema aretoetara. Film horretan, Uribek Lucía-ren benetako historia kontatzen du; izan ere, Lucía sarraski baten lekuko bakarra izan zen 1989. urteko azaroan, Erdialdeko Amerikan, San Salvador (El Salvador) hiriko José Simeón Cañasan unibertsitatean sei jesuita hil zituztenean. Biktimetako bat Ignacio Ellakuria filosofo, idazle eta teologo bizkaitarra zen.

Imanol Uriberen omenez, ZINEBIren 63. edizioan zinemagileak ikus-entzule bilbotarrekin elkartzeko aukera izango du Bilboko Arte Ederren Museoan, azaroaren 18an, eta Carlos Reviriego Espainiako Filmategiko programatzailea izango da moderatzailea; saio horretan, gainera, *Ez* (1977) eta *Ikuska 13: Euskal kantagintza berria* (1982) film laburrak emango dituzte, eta *Llegaron de noche* (2022) hurrengo film laburreko materiala ere izango da ikusgai.

Imanol Uribek hilaren 19an jasoko du Ohorezko Mikeldi saria, ostiralarekin, itxiera galan; bestalde, Uriberen *La fuga de Segovia* (1981) filmaren 40. urteurrena dela eta, Carlos Juárezek eta Ángel Amigok erakusketa bat bultzatu dute eta ZINEBIk Bilbora ekarriko du. Erakusketa horretan, filmeko objektuak eta dokumentuak egongo dira ikusgai, baita filma grabatzen ari ziren bitartean Jesús Uriarte argazkilariak ateratako irudiak ere.

Erakusketa San Frantziskoko Komentu Zaharreko Aztarnategian egongo da, eta nahi duen orok ikusi ahal izango du azaroaren 12tik aurrera.

3. Sariak

Sail Ofizialeko Film Luzeen Nazioarteko Lehiaketa osatzeko aukeratu diren lanek honako sari hauek irabaz ditzakete:

ZINEBIKO Sari Nagusia	7.000 €
Euskal Zinemaren Sari Nagusia	6.000 €
Espainiako Zinemaren Sari Nagusia	6.000 €
Fikziozko Film Labur Onenaren Mikeldia	5.000 €
Animaziozko Film Labur Onenaren Mikeldia	5.000 €
Film Labur Dokumental Onenaren Mikeldia	5.000 €
Publikoaren EITB Saria	3.000 €
Euskadiko Gidoi Onenaren SGAE Fundazioa Saria	3.000 €
FAS Zineklub Saria	2.000 €
Unicef saria	(diru-kopururik gabea)

Sail Ofizialeko ZIFF Zinebi First Film – Nazioarteko Lehiaketan parte hartzen duten filmek honako sari hauek jaso ditzakete:

ZIFF Sari Nagusia	12.000 €
ZIFF – Gazte Epaimahaiaren Saria:	2.000 €

4. Epaimahaiak

Sail Ofiziala – Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa

ZINEBI63

Bilbao

Atal Ofiziala / Official Selection / Sección Oficial

Film Laburren Nazioarteko Lehiaketaren Epaimahaia
Short Film International Competition Jury
Jurado Concurso Internacional de Cortometraje

Isabel Herguera

Itandehui Jansen

Jone Laspiur

James Lattimer

Florencia de Mugica

Isabel Herguera

Mundu osoko zinemaldietan hautatuak izan diren hainbat film labur zuzendu eta ekoitzi ditu. Esaterako, *La gallina ciega* (2005), Animaziozko Film labur Onenaren Goya sarirako izendatua, eta *Ámár* (2010), *Bajo la almohada* (2012), *Amore d'inverno* (2015) —ZINE-BIn Euskal Zinemaren Sari Nagusia irabazi zuena— edo *Kutxa Beltza* (2016). Halaber, Mostra Internacional de Cinema d'Animació de Catalunya-ko zuzendaria izan zen 2011ra arte. Gaur egun, irakasle dihardu KHM-Koloniako Kunsthochschule für Medien-en, eta bere animaziozko lehen film luzea egiten ari da, *El sueño de la sultana* izenekoa.

Itandehui Jansen

Itandehui Jansen Oaxacan jaio zen, Mexikon, eta Zuzendaritza ikasketak egin zituen Herbehereetako Zinema Akademian. Nazioarteko hainbat programatan parte hartu du, hala nola Torino Film Lab-ean eta Berlinale Talents-ean. Bere dokumentalak eta film laburrak hainbat jaialditan proiektatu dira, hala nola Amsterdamgo Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdian (IDFA) eta Moreliako Nazioarteko Zinemaldian. *El último consejo* (2012) film laburrarekin nazioarteko hainbat sari irabazi zituen eta Mexikoko zinema kritikaren Diosa de Plata sarirako izendatu zuten. Gaur egun zinema irakaslea da Edinburgoko Unibertsitatean (Erresuma Batua).

Jone Laspiur

Aktore donostiarrak Aktore Berri Onenaren Goya saria jaso zuen 2021ean. Arte Ederrak ikasi zituen EHUn, eta tartean urtebete egin zuen Buenos Aireseko UMSAn Arteko Galerian eta Asmoz Kultur Fundazioan aritu zen lanean, Gazteakera kooperazio programarekin Peruko Cutervo herrira joan aurretik. Beranduago Donostiako Azpi espazioan aritu zen bere lan pertsonala garatzen, eta 2019an

Eusko Jaurilaritzaren sorkuntzarako laguntza jaso zuen. Ondoren MIAC (Master de investigación y creación en Arte) masterra egin zuen Madrilgo UCMn. 2019an Pablo Agueroren *Akelarre* filman estrenatu zen aktore gisa, eta ondoren David P. Sañudoren *Aneri* gorputza eman zion, paper horrekin 2021eko Aktore Berri Onenaren Goya saria jasoz. Zuzendari beraren *Alardea* telesailan ere egin du aktore lana, hala nola Iciar Bollainen *Maixabelen* (2021) eta Esti Urresolaren *Polvo Somos* (2020) film laburrean, zeina ZINEBI 62n estreinatu baitzen eta Euskal Zinemaren Sari Nagusia eskuratu baitzuen. Aktore gisa trebatzeari dagokionez, Mar Navarrok Madrilgo eskolan ikasten ari da.

James Lattimer

Programatzailea, kritikaria eta zinemagilea da. Berlinale Forumeko hautaketa batzordeko kide da 2011tik, eta 2018an Viennalean parte hartzen hasi zen programazio-aholkulari gisa. Documenta Madrideko komisario gonbidatua izan zen 2020an, eta 2021ean komisario artistikoa izan zen. *All Still Orbit* film laburrean zuzendarikide izan zen Dane Komljen-ekin batera, eta *Afterwater* film luze berriaren gidolarietako bat da. Kritikari gisa, Lattimerrek *Cinema Scope*, *Sight and Sound*, *The Brooklyn Rail* eta *Fireflies* argitaratzen du. Halaber, koeditorea da TEXTUREn, Viennalean zuzendari garaikideei buruz argitaratzen duen liburu sortan. Lehenengo edizioak Angela Schanelec, Kelly Reichardt eta Terence Daviesi eskainitakoak izan dira.

Florencia de Mugica

Arte Dramatikoko lizentziaduna da eta Zinematografia Ikastaroetan masterra du Elias Querejeta Zine Eskolan. 2015ean Bomba Cine sortu zuen. Bere lanen artean bi opera prima daude: Edgardo Castoren *La noche*, zinema jaialdi askotan hautatua eta Zinema Independentearen Nazioarteko Jaialdian Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea (BAFICI), eta Sol Berruezoren *Mamá, madre, mamá*, Rita Cinerekin batera ekoitzia eta Berlinale 2020an Epaimahaiaren Sari Bereziaren irabazlea KPlus sailean; Jaime Levinasen *PinPin* film laburraz gain. Gaur egun Pablo Agüero zuzendariaren proiektu batean ari da lanean.

Sail Ofiziala – ZIFF – Zinebi First Film – Nazioarteko Lehiaketa

ZINEBI63

Atal Ofiziala / Official Selection / Sección Oficial

ZIFF - Zinebi First Film Nazioarteko Lehiaketaren Epaimahaia
ZIFF - Zinebi First Film International Competition Jury
Jurado Concurso Internacional ZIFF - Zinebi First Film

Eva Sangiorgi



Helena Wittmann



Paula Arantzazu Ruiz





Paula Arantzazu Ruiz

Kazetaritzan lizentziatu zen Pompeu Fabra Unibertsitatean (UPF), eta Gizarte Komunikazioan doktoratu zen, UPFn ere, Yervant Gianikian eta Angela Ricci Lucchi italiarren zinemari buruz eta medikuntzaren kultura bisualarekin lotuta egin zuen tesiarekin. Kazetari eta zinema-kritikari gisa, kolaborazioak egiten ditu Cinemanía eta Diari Aran, besteak beste, eta Gaztela-Mantxako Unibertsitateko irakasle elkartua da. Bere azken argitalpenen artean, bi obra kolektibo daude: *La paranoia contemporánea. El cine en la sociedad de control* (Trea, 2019) eta *Cuerpos representados. Objetos de ciencia artísticos en España, siglos XVIII - XX* (Sans soleil, 2020).

Eva Sangiorgi

Vienan bizi den idazlea eta programatzailea. 2011n, UNAMen Nazioarteko Zinemaldia (FICUNAM) sortu zuen Mexiko Hirian, eta 2018ra arte haren zuzendari gisa jardun zuen. Han bertan, 2016an, Brava Cinema izeneko bere enpresa banatzailea sortu zuen. Sangiorgik zinema-programatzaile eta telebista-aurrezle gisa ere lan egin du zinematografian espezializatutako programetan. Gaur egun Viennaleko zuzendari artistikoa da, eta Donostiako Elias Querejeta Zine Eskolako Komisariotza Saileko koordinatzailea.

Helena Wittmann

Hanburgon (Alemania) bizi den artista eta zinemagilea da. Erlangen eta Hanburgo artean Filologia Hispanikoa eta Komunikazio Zientziak ikasi ondoren, hiri horretako Arte Ederren Goi Eskolan (HFBK) graduatu zen 2014an. *Wildnis* (2013) eta *21,3 °C* (2014) film laburrak filmatu ondoren, *Drift* bere lehen film luzea Veneziako Zinemaldiko Kritikaren Astean estreinatu zen 2017an, eta ZIFF Epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen ZINEBIN. Bilboko eta nazioarteko hainbat zinemalditan eta zinema-erakusketatan parte hartu zuen *Ada Kaleh* (2018) bere film laburrekin. Wittmannek hainbat proiektutan dihardu elkarlanean, hala nola Nika Son-ekin eginda koetan, eta baita beste zinemagile batzuentzat argazki-zuzendari gisa ere. Halaber, mentorea izan zen Donostiako Elias Querejeta Zine Eskolan, eta ikerketa artistikoko laguntzailea HFBKn. 2020-2021 zikloan.

Sail Ofiziala – Film Laburren Nazioarteko Lehiaketako Euskadiko Gidoi Onenaren Sgae Fundazioa Saria



Ana Hormaetxea

Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna, gidoilari gisa ETBko telesail eta saioetan lan egin du batez ere (*Go!azen*, *Vaya se-manita*, *Esto no es serio*, *¿o sí?*, *Dale una vuelta*, *Tú al norte y yo al sur*, *Balbemendi*, besteak beste). Gaur egun, hainbat film luze eta fikziozko telesail garatzen ari da: *Amor sólido*, *Ladronas*, *1134 kilómetros* eta *El tesoro de Lehman*. EHGEpko (Euskal Herriko Gidoigileen Elkarte Profesionala) presidentea da, eta baita CIMA Emakume zinemagileen Elkarteko eta HEMEN Euskadiko ikus-entzunezkoen emakumeen elkarteko bazkidea.

Nekane E. Zubiaur

Irakasle agregatua da Euskal Herriko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Sailean (UPV/EHU). "Fikziozko gidoia" irakasgaia irakasten du. Espainiako zinemaren analista filmikoa eta historialaria da, eta *Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo* ikerketa taldeko kidea da. Honako liburu hauek argitaratu ditu: *Peter Weir* (2013), *Anatomía de un cineasta pasional. El cine de Manuel Mur Oti* (2013), *Cortometrajes de Kimuak. Semillas del cine vasco* (2014) eta *Kimuak: The Seeds of Basque Cinema* (2018); azken horiek Ainhoa Fernández de Arroyabe eta Iñaki Lazkanorekin batera idatzitakoak dira.

Haritz Zubillaga

El ataúd de cristal (2017) kultuko filmaren zuzendaria da, eta nazioartean arrakasta handia izan zuen *El hoyo* (2019) filmaren muntatzailea ere bada. *Las horas muertas* (2007), *She's Lost Control* (2010) eta *The Devil On Your Back* (2015) bere film laburrek ehundik gora sari jaso zituzten. *Las horas muertas* filmak Europako Film Labur Fantastiko Onenaren – Méliès D'Or izendapena lortu zuen.

5. Sección Oficial – Concurso Internacional de Cortometraje

Un año más, han sido más de 3.500 cortometrajes los que han visto los miembros del comité de selección de ZINEBI para elegir, en esta ocasión, un total de 55 películas (54 son *premiere* en el Estado) procedentes de 29 países, dirigidas por 31 hombres y 35 mujeres.

Según las tres categorías establecidas en el reglamento del Festival, 18 de ellas son ficciones (32,7%), 18 son documentales (32,7%) y 19 animaciones (34,5%). En cuanto a su distribución geográfica, dejando aparte las películas vascas y del Estado, este año destaca por su participación Francia (10 películas producidas o coproducidas junto a otros países), seguida de Alemania (6) y Japón (4).

De las 55 películas que participan en esta competencia, 7 son vascas:

1. **AZALETIK AZALERA** | Animación
Mel Arranz – EUSKADI – 7' – 2021
2. **BERAK BALEKI / IF THEY KNOW** | Ficción
Aitor Gametxo – EUSKADI – 17' – 2021
3. **KINKA** | Ficción
Maider Oleaga – EUSKADI – 15' – 2021
4. **LOVE NEEDS TIME TO KILL** | Documental
Txuspo Poyo – EUSKADI – 21' – 2021
5. **UR AZPIAN LORE** | Animación
Aitor Oñederra – EUSKADI – 13' – 2021
6. **VATIOS** | Ficción
David Pérez Sañudo – EUSKADI – 14' – 2021
7. **YUNGAY 7020** | Documental
Raquel Calvo Larralde & Elena Molina Merino – EUSKADI – 19' – 2021

Lehiaketan parte hartzen duten filmetatik 9 Estatuan egindakoak dira:

1. **CAN GARDELL | Fikzioa**
Silvia Subirós & Florencia Aliberti – ESPAINIA – 22' – 2021
2. **DAD IS GONE | Animazioa**
Pere Ginard – ESPAINIA – 4' – 2021
3. **DESCARTES | Dokumentala**
Concha Barquero & Alejandro Alvarado – ESPAINIA – 21' – 2021
4. **ÉCOUTEZ-MOI | Dokumentala**
Paula Armijo – ESPAINIA – 17' – 2021
5. **MUERTE MURCIÉLAGO | Animazioa**
Carlos Saiz – ESPAINIA – 4' – 2021
6. **NINGÚN RÍO ME PROTEGE DE MIN / NO RIVER PROTECTS ME FROM MYSELF | Dokumentala**
Carla Andrade – ESPAINIA – 27' – 2021
7. **LAS NIÑAS SIEMPRE DICEN LA VERDAD / GIRLS ALWAYS TELL THE TRUTH | Dokumentala**
Virginia García del Pino – ESPAINIA – 10' – 2021
8. **LA PRIMA COSA | Animazioa**
Omar Al Abdul Razzak & Shira Ukrainitz – ESPAINIA / FRANTZIA – 22' – 2021
9. **PROJECT MOTHERHOOD | Dokumentala**
Lea Hanzelova & Michal Babinec – ESLOVAKIA / ESPAINIA – 10' – 2021

ZINEBI 63ko Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa honako film labur hauek osatzen dute:

1. **13 | Dokumentala**
Shinya Isobe – JAPONIA – 10' – 2020
2. **ANXIOUS BODY | Animazioa**
Yoriko Mizushiri – FRANTZIA / JAPONIA – 6' – 2021



3. **AZALETIK AZALERA | Animazioa**
Mel Arranz – EUSKADI – 7' – 2021
4. **BABIČINO SEKSUALNO ŽIVLJENJE / GRANNY'S SEXUAL LIFE | Animazioa**
Urška Djukić & Émilie Pigéard – ESLOVENIA / FRANTZIA – 13' – 2021
5. **BERAK BALEKI / IF THEY KNOW | Fikzioa**
Aitor Gametxo – EUSKADI – 17' – 2021
6. **BESTIA | Animazioa**
Hugo Covarrubias – TXILE – 16' – 2021
7. **LAS BRÍGIDAS | Dokumentala**
Julieta Morales San Martín – TXILE – 14' – 2020
8. **BRÛLENT LES VILLES, BRÛLE LE CIEL / BURN THE CITIES, BURN THE SKY | Fikzioa**
Frédéric Bernard – FRANTZIA – 18' – 2020
9. **BUSLINE35A | Animazioa**
Elena Felici – DANIMARKA – 6' – 2021
10. **CABRA CEGA / BLINDMAN'S BUFF | Fikzioa**
Tomás Paula Marques – PORTUGAL – 16' – 2021
11. **CAN GARDELL | Fikzioa**
Silvia Subirós & Florencia Aliberti – ESPAINIA – 22' – 2021
12. **DAD IS GONE | Animazioa**
Pere Ginard – ESPAINIA – 4' – 2021
13. **DESCARTES / OUTTAKES | Dokumentala**
Concha Barquero & Alejandro Alvarado – ESPAINIA – 21' – 2021

14. **ÉCOUTEZ-MOI / LISTEN TO ME | Dokumentala**
Paula Armijo – ESPAINIA – 17' – 2021
15. **ELLE | Fikzioa**
Luise Donschen – ALEMANIA – 14' – 2021
16. **IL FAUT FABRIQUER SES CADEAUX / GOTTA FABRICATE YOUR OWN GIFTS | Fikzioa**
Cyril Schäublin – SUITZA – 11' – 2021
17. **IN GUTEN HÄNDEN / IN GOOD HANDS | Dokumentala**
Kezia Zurbrügg & Philipp Ritler – SUITZA – 13' – 2021
18. **INHERENT | Fikzioa**
Nicolai G. H. Johansen – DANIMARKA – 16' – 2021
19. **KINKA | Fikzioa**
Maider Oleaga – EUSKADI – 15' – 2021
20. **LOVE NEEDS TIME TO KILL | Dokumentala**
Txuspo Poyo – EUSKADI – 21' – 2021
21. **MAY-JEJU-DAY | Animazioa**
Jude Kang – KOREAKO ERREPUBLIKA – 14' – 2021
22. **MICHAEL IRONSIDE AND I | Dokumentala**
Marian Mayland – ALEMANIA – 15' – 2021
23. **MILÝ TATI / LOVE, DAD | Animazioa**
Diana Can Van Nguyen – TXEKIAR ERREPUBLIKA – 13' – 2021
24. **MOM | Animazioa**
Kajika Aki Ferrazzini – FRANTZIA – 9' – 2021
25. **MUERTE MURCIÉLAGO | Animazioa**
Carlos Saiz – ESPAINIA – 3' – 2021
26. **NIGHT | Animazioa**
Ahmad Saleh – ALEMANIA / QATAR / PALESTINA / JORDANIA – 16' – 2021
27. **NIGHT SNORKELING | Dokumentala**
Hirofumi Nakamoto & Nao Yoshigai – JAPONIA – 12' – 2020
28. **NINGÚN RIO ME PROTEGE DE MÍ / NO RIVER PROTECTS ME FROM MYSELF | Dokumentala**
Carla Andrade – ESPAINIA – 27' – 2021
29. **LAS NIÑAS SIEMPRE DICEN LA VERDAD / GIRLS ALWAYS TELL THE TRUTH | Dokumentala**
Virginia García del Pino – ESPAINIA – 10' – 2021
30. **O TEU NOME É / YOUR NAME IS | Animazioa**
Paulo Patrício – PORTUGAL / BELGIKA – 24' – 2021
31. **OKRUSZKI ŻYCIA / CRUMBS OF LIFE | Animazioa**
Katarzyna Miechowicz – POLONIA – 7' – 2020
32. **ONE HUNDRED STEPS | Dokumentala**
Bárbara Wagner & Benjamin de Burca – ALEMANIA / FRANTZIA – 30' – 2021
33. **PEWNEGO RAZU W IZRAELU / ONCE UPON A TIME IN ISRAEL | Animazioa**
Weronika Szyma – POLONIA – 11' – 2021
34. **PODESTA ISLAND | Fikzioa**
Stéphanie Roland – FRANTZIA / BELGIKA – 23' – 2021





35. **LA PRIMA COSA** | Animazioa
Omar Al Abdul Razzak & Shira Ukrainitz – ESPAINIA / FRANTZIA – 19' – 2021
36. **PROJECT MOTHERHOOD** | Dokumentala
Lea Hanzelova & Michal Babinec – ESLOVAKIA / ESPAINIA – 10' – 2021
37. **PUNCH-DRUNK** | Fikzioa
Larry Ketang & Liam White – ERRESUMA BATUA – 13' – 2021
38. **LES RACINES DE L'EAU / THE ROOTS OF WATER** | Dokumentala
Sarah Lederman – BELGIKA – 19' – 2021
39. **SAFE** | Fikzioa
Ian Barling – AEB – 16' – 2021
40. **SEHR GEPFLEGT UND GUT GELEGEN / BEAUTIFULLY MAINTAINED AND WELL LOCATED** | Dokumentala
Lukas Marxt & Jakub Vrba – AUSTRIA / ALEMANIA – 9' – 2021
41. **SJENE / SHADOWS** | Animazioa
Dea Jagić – KROAZIA – 8' – 2021
42. **SOME KIND OF INTIMACY** | Dokumentala
Toby Bull – ERRESUMA BATUA / FRANTZIA – 6' – 2021
43. **EL SUEÑO MÁS LARGO QUE RECUERDO / THE LONGEST DREAM THAT I REMEMBER** | Fikzioa
Carlos Lenin – MEXIKO – 20' – 2021
44. **SUPER NOVA** | Fikzioa
Juliette Saint Sardos – FRANTZIA – 16' – 2021
45. **TIMKAT** | Dokumentala
Ico Costa – PORTUGAL – 13' – 2021
46. **TURISTA** | Dokumentala
Nele Wohlatz – ALEMANIA / BRASIL – 10' – 2021
47. **UR AZPIAN LORE / FLOWER UNDER WATER** | Animazioa
Aitor Oñederra – EUSKADI – 14' – 2021
48. **VATIOS / WATTS** | Fikzioa
David Pérez Sañudo – EUSKADI – 14' – 2021
49. **YUGO** | Animazioa
Carlos Gómez Salamanca – FRANTZIA / KOLONBIA – 10' – 2021
50. **YUNGAY 7020** | Dokumentala
Raquel Calvo Larralde & Elena Molina Merino – EUSKADI – 19' – 2021
51. **СЕВЕРЕН ПОЛ / NORTH POLE** | Fikzioa
Marija Apcevska – IPAR MAZEDONIA / SERBIA – 15' – 2021
52. **水中的女孩 / GIRL IN THE WATER** | Animazioa
Shi-Rou Huang – TAIWAN – 7' – 2021
53. **草地火焰 / GREEN GRASS, PALE FIRE** | Fikzioa
Yin-Yu Huang – TAIWAN / JAPONIA – 21' – 2021
54. **清明梦 / A LUCID DREAM** | Fikzioa
Li Yue – TXINA – 30' – 2021
55. **МИР / MIR** | Fikzioa
Gorana Jovanović – SERBIA – 11' – 2021

6. Sail Ofiziala – ZIFF – Zinebi First Film – Nazioarteko Lehiaketa

ZINEBIren Sail Ofizialeko bigarren zutabe nagusia ZIFF da, *opera prima* diren film luzeen nazioarteko lehiaketa. Berriz ere bederatzi film luzeren Estatu mailako estreinaldia Bilbon izango da, ZIFF Sari Nagusia (12.000€) eskuratzeko lehian.

Aurten, 12 herrialde ordezkatzan dituzten filmak hautatu dira: Alemania, Frantzia, Eslovenia, Serbia, Kosovo, Montenegro, Etiopia, Qatar, Koreako Errepublikak, Estatu Batuak, Argentina eta Mexiko.

1. LA CHICA NUEVA / THE NEW GIRL, Micaela Gonzalo (Argentina, 2021) (78')

La chica nueva (2021) filmari esker, Micaela Gonzalo argentinarrak arrakasta handia izan zuen Cinélatino – Rencontres de Toulouse (Frantzia) zinemaldian. Bere aurreko lana, *Toda mi alegría* (2018) film laburra, Berlinalean aurkeztu zuen. Film luzerako jauzia egiteko, Gonzalok Río Grande hiria aukeratu du, Suaren Lurraldeko uharte handian dagoena, Jimenaren (Mora Arenillas) istorioa girotzeko. Jimena Argentinako hegoaldeko muturrera bidaiatuko duen neska gazte bat da, bere erdi-anaiaren (Rafael Federman) bila, zeinaren laguntzarekin norabidea berreskuratu nahi duen, krisi ekonomikoaren testuinguru konplexu batean.

2. FAYA DAYI, Jessica Beshir (Etiopia – AEB – Qatar, 2021) (120')

Jaiotzez mexikarra izan arren, Jessica Beshir Etiopian hazi zen eta New Yorken bizi da. *Faya Dayi*-n (2021) film luzerako jauzia egin zuen, ia osorik Etiopiako mendietan filmatutako dokumentalarekin. Han, Afrikako Adarreko herrialde arabiarretan murtxikatu eta erabili izan den khaten laborantza oso negozio onuragarria bihurtu da. Kondairaren eta errealitatearen erdibidean, *Faya Dayi* itzuli egiten da *Hairat* (2017) bere film laburrean erretratatu zuen argi-iluneko Harar Eskualdera.

Sundancen estreinatu ondoren, eta kritikaren arabera “hipnotikoa, istorioan murgiltzen zaituena eta oso ederra” da. Beshirren debutak Dokumental Onenaren Saria lortu zuen Visions du Réel-en (Suitza) eta Publikoaren Saria Hot Docs-en (Kanada). Gainera, joan den hilean New Yorkeko Lincoln Center-eko New Directors/New Films-en berrogeita hamargarren edizioan parte hartu zuen.

3. FREIZEIT ODER: DAS GEGENTEIL VON NICHTSTUN / FREIZEIT OR: THE OPPOSITE OF DOING NOTHING, Caroline Pitzen (Alemania, 2021) (71')

Adinez nagusi izateko zorian dauden bost gazte alemaniar dira protagonista *FREIZEIT oder: das Gegenteil von Nichtstun* (2021) Caroline Pitzenek zuzendutako dokumentalean. 2018ko Berlinen girotuta, gazteak irudikatuko ditu, ohikoa den ikuspegiaren antipodetan jarrit. Hirian barrena paseatzen dira, eta etorkizunean bere bizitza nolako izango den galdetzen diote beren buruari. Beti dabilta eztabaidan: eguneroko sexismoari buruz, gizabanakoak bizi garen sisteman duen erantzukizunari buruz, erantzukizun kolektiboari buruz edo gentrifikazioari buruz. Haien inguruan gertatzen dena eta gertatu beharko litzatekeena kontraesanean sartzen dira, baina etorkizunari optimismoz begiratzen diote.

Pitzenek Berlinaleko Kritikaren Astean aurkeztu zuen bere estreinako filma eta, ondoren, Cinéma du Réel-en (Frantzia) eman zuten.

4. LOS FUNDADORES, Diego Hernández (Mexiko, 2021) (62')

Tijuanako gazteen fikzioaren eta errealitatearen artean dabilen Diego Hernándezen *Los fundadores* (2021) *opera prima* Mexikoko film onenaren Zilarrezko Puma irabazi zuen FICUNAM-en (Mexiko) azken edizioan. Geroago, FID Marseillen (Frantzia) epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen.

Diego, Andrés eta Renée dira protagonistak, beren ahalegin pertsonala gorabehera, profesionalki garatzea lortzen ez duten unibertsitateko ikasleak, hein batean ikasten ari diren unibertsitatara bideratutako baliabide batzuk, susmagarriki, beste xede batzuetarako desbideratu direlako.

5. LANGUAGE LESSONS, Natalie Morales (AEB, 2021) (91')

Duela hilabete estreinatu zen komertzialki Estatu Batuetan Natalie Morales kubatar jatorriko aktore iparramerikarrak zuzendari gisa egindako lehen lana: *Language Lessons* (2021). Fikziozko film hau Berlinalean azken edizioan aurkeztu zen Austingo (AEB) SXSW Zinema Jaialdian Publikoaren Saria lortu aurretik. Moralesek berak eta Mark Duplass *indie* zinema estatubatuarreko izarra izan ziren filmeko antzezle protagonistak.

‘Variety’ honela definitu zuen: “komedia erromantiko platoniko bat Zoom-en garai hauetarako”. *Language Lesson* sek Adam eta bere gaztelaniazko irakaslearen artean sortzen den ustekabeko harremana kontatzen du. Astero Internet bidez egiten dituzten eskola horiek Adamen senarrak kontratatu ditu.



6. L'ÉTÉ L'ÉTERNITÉ / OUR ETERNAL SUMMER, Émilie Aussel (Frantzia, 2021) (75')

Locarnoko (Suitza) Zinemaldiko aurreko edizioan *Cineasti del Presente* saileko Epaimahaiaren Sari Bereziaren babesa jaso ondoren, Émilie Aussel zuzendari frantziarrak *L'été, l'éternité* (2021) fikziozko bere lehen film luzea aurkeztuko du. Aurretik egin dituen film labur guztietan bezala, filmaren protagonistak 18 urte inguruko gazteak dira eta, kasu honetan, uda kostaldean igarotzeko prestatzen ari dira, inolako kezkarik gabe. Ausselek gazte eta nerabeen talde honetara hurbilduko gaitu, euren bizitzak markatuko dituen uda honetan, onenari eta txarrenari aurre egin beharko baitiote.

7. ODPUSČANJE / RECONCILIATION, Marija Zidar (Eslovenia – Serbia – Montenegro – Kosovo, 2021) (82')

Familien arteko liskarrak eta gatazkak konpontzeko oztopoak, baina batez ere, aurrez aurre dauden alderdien artean adostutako bide baten bidez gainditzeko modua dira Marija Zidar esloveniar zinemagileak zuzendutako *Odpusčanje* (2021) film luze dokumental honen gai nagusiak. Filma Danimarkako CPH:DOX zinema dokumentalaren jaialdiko Netx:Wave sailean estreinatu zen.

Balkanetako koprodukzio hau (Eslovenia, Serbia, Montenegro eta Kosovok parte hartzen dute) Albaniako goi lurretan girotuta dago eta Kanun-a du datatz, Erdi Aroko kodea, landa-eremuetan legeak berak baino indar handiagoa duena eta “odola odolez garbitzea” ere aurreikusten duena.

8. ROCK BOTTOM RISER, Fern Silva (AEB, 2021) (70')

Fern Silva zuzendari lusitaniar-estatubatuarra dagoeneko lehiatu zen ZINEBIko Sail Ofizialean; 2017an izan zen, *Ride Like Lightning*, *Crash Like Thunder* film laburrekin. ZIFFen bere *opera prima* aurkeztuko du: joan den Berlinaleko *Encounters* sailean estreinatutako ez-fikziozko filma. Berlinalean Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso zuen *Rock Bottom Riser* (2021) filmak eta, ondoren, Frantziako Cinéma du Réel jaialdian, Rotterdango Nazioarteko Jaialdian (Herbehereak) eta IndieLisboa (Portugal) jaialdietan parte hartzeko hautatua izan da.

Hawaiiko uharteetako sumendietatik sortzen diren laba-koladak dira abiapuntua. Silvak hain urruneko leku batean bizitza nola-koa izan zen eta etorkizun hurbilean nola alda litekeen erakusten duen erretratu landu bat eraikitzen du, izan ere, munduko teleskopio handiena eraiki nahi dute artxipelagoko mendi sakratuenean, Mauna Kea izeneko jarduerarik gabeko sumendi ikusgarrian.

9. 희수 / THE TRAIN PASSED BY, Kam Jeong-won (Koreako Errepublika, 2021) (75')

The Train Passed By (희수, 2021) filmean mundu mailako estreinaldia egin ondoren, Kam Jeong-won zuzendari korearrak ZINEBI aukeratu du apirilean Jeonjuko Nazioarteko Jaialdian aurkeztutako bere *opera primaren* nazioarteko estreinaldia egiteko. Heesuk, 27 urteko emakumeak, Daeguko industriagune batean lan egiten du lan munduan sartu zenetik, eta lehena izango den bidaiari ekiten dio (eta ez da bidaiatzearen atseginagatik izango).

7. Beste sailak



Beautiful Docs. Munduko film luze dokumentalen panorama

ZINEBIren programazioaren atal honen bederatzigarren edizioan, Jaialdiak harrotasun handiz aurkeztuko ditu 2021. urtean mundu osoan barrena ikusgai egon diren film dokumental luzeen arteko onenetakoak.

Saila osatzen duten 10 dokumentalak 14 herrialdeko ekoizpen enpresen ekoizpenak izan dira, eta azken hamabi hilabete hauetan egin dira mundu mailako estreinaldiak. Horien arteak, 5 ez dira inoiz Estatuan eman, orain arte.

1. BABI YAR. CONTEXT, Sergei Loznitsa (Herbehereak – Ukraina, 2021) (121')

Gaur egungo dokumentalaren maisuetako bat, Sergei Loznitsa bielorrusiarra, ZINEBIra itzuliko da. Bertan aurkeztu zituen *Maidan* (2014), *El último imperio* (Sobytye, 2015), *Austerlitz* (2016), *The Trial* (Process, 2018), *State Funeral* (2019) eta *Une nuit à*

l'opéra (2020). *Babi Yar. Context* (2021) lanarekin itzuliko da. Tropa naziek hiru egun eskasetan 30.000 judu baino gehiago hil zituzten sarraskitik 80 urte bete zirenean filmatutako aparteko dokumentua denarekin. Gertakariak Kieveko Babi Yar sakanean izan ziren.

Loznitsak, oraingoan ere, artxiboko materiala erabiltzen du gertaera izugarri haiek testuinguruan kokatzeko, eta nazien inbasioaren aurreko hilabeteak nola igaro ziren gogorarazteko, gaur egun naziek Bigarren Mundu Gerran egin zuten hilketa masiboririk handiena gertatu aurrekoak.

2. CONCIERTO PARA LA BATALLA DE EL TALA, Mariano Llinás (Argentina, 2021) (64')

Historias extraordinarias (2008) eta *La flor* (2018) filmen zuzendaria, 2018an ZINEBIren Ohorezko Mikeldia jaso zuena, ez-fikzioaren lurraldera itzuliko da, BAFICren aurreko edizioan estreinatutako *Concierto para la batalla de El Tala* (2021) lanarekin. Zuzendariak edozein istorio, baita Argentinako Gerra Zibiletako lehen borrokaldietako bat ere, bere eremu pertsonalera eramateko duen talentuaren beste adibide bat da.

800 minutu baino gehiago irauten duen film luze bat filmatu ondoren, Llinás ordubete pasatxora mugatzen da bere sormen handiarekin Gabriel Chwojniken musika aparta aurkezteko, eta egun bakar batean grabatutako film bat musikal, gerra-film, abenturazko film esperimental eta historiako (historia kritikoko edo ofizialeko) ikasgai bihurtzeko. ZINEBI izango da Estatu mailako estreinaldia.

3. MARX PUÒ ASPETTARE / MARX CAN WAIT, Marco Bellocchio (Italia, 2021) (95')

Cannesko Zinemaldian estreinatu zen, Bellocchiok Ohorezko Urrezko Palma bat jaso zuen edizioan, "zinema garaikidea indarrez eta askatasunez markatu duen ibilbide zinematografiko batengatik". *Marx può aspettare* (2021) 2017an ZINEBIren Ohorezko Mikeldia izan zenaren film luzerik berriena da.

Fikzioaren bidez egin zuen bezala (adibidez, *I pugni in tasca* (1965) bere *opera priman*), Bobbioko zinemagilea bere familiara itzuliko da. Kasu honetan, bere anaia bikia Camilloren 1968ko suizidioari erantzunak bilatzen saiatzeko.

4. MOTVINIEREBA / TAMING THE GARDEN, Salomé Jashi (Suitza – Alemania – Georgia, 2021) (92')

Naturak gizakiaren aurka duen borrokaren kronika den *Taming the Garden* urteko dokumentalik harrigarrienetako bat da. Georgiatik iritsi zaigu, Sundancen estreinatu zuten, eta ondoren Berlinaleen Cinéma du Réel (Paris) eta FICUNAMen (Mexiko) ikusi ahal izan zen. Salomé Jashiren bigarren film honek frogatu egiten du errealtateak maiz fikzioa gainditzeko duela.

Georgiako lehen ministro ohi batek oso ohikoa ez den *hobby* bat du: ehun urtetik gorako zuhaitzen bilduma egitea. Hori egin ahal izateko, ez du inolako zalantzarik langileak kontratatzeke ordutan, aleak erauzi eta bere lorategi pribatura eraman ditzaten.

5. A NIGHT OF KNOWING NOTHING, Payal Kapadia (Frantzia – India, 2021) (97')

Urteko dokumental erradikalenetako batean, Payal Kapadia zinemagile bonbaiti gazteak fikzioaren klasiko bat baliatzen du, genero epistolarra, protagonistak bizi den gizartearekiko duen begirada, bere ametsak, oroitzapenak eta fantasiak aditzera emateko.

Bere lehenengo film luzea da, baina eskarmentu handia du Berlinen edo IDFan ikusgai izan diren film laburrak zuzentzen. Dokumental poetiko honekin, Kapadiak Cannesko Zinemaldiko film dokumental onenaren Golden Eye saria lortu zuen.

6. NOUS / WE, Alice Diop (Frantzia, 2021) (115')

Berlingo Nazioarteko Zinema Jaialdiko Encounters saileko nazioarteko epaimahaiaren Film Onenaren aitortza jaso zuen eta Cinéma du Réel en inaugurazio-film izendatu zuten. Alice Diop dokumentalgilearen film berriak Parisko metropoli-eremuan jartzen du begirada.

Europa garaikideko hiri handietan antzematen diren hausturen kronika bat da *Nous*. Diopek lurralde berebete bizi diren pertsona taldeak protagonista dituzten istorio laburren bilduma bat eskaintzen du: elkarrengandik argi urteetara daudela dirudi, baina, benetan, RER (Parisko aldiriko tren) trenaren B lineak lotzen ditu. ZINEBI izango da Estatu mailako estreinaldia.



7. PEJZAŽI OTPORA / LANDSCAPES OF RESISTANCE, Marta Popivoda (Serbia – Frantzia – Alemania, 2021) (96')

Marta Popivoda zinemagile serbiarraren azken dokumentala Sofia Sonja Vujanovic Serbiako lehen emakume partisanoetako baten oroitzapenetara egindako bidaia da. Auschwitzeko hilketa-esparrura eraman zuten, eta nazien terrore-gunetik erresistentziaren lider bihurtu zen.

laz bere aurreko lana, *Yugoslavia: How Ideology Moved Our Collective Body* (2013) lana ZINEBIn aurkeztu ondoren, Popivoda Rotterdamgo Nazioarteko Jaialdian estreinatutako film batekin itzuliko da oraingoan; Cinéma du Réel (Paris), Jeonju (Korea), Beldocs (Belgrad), Salónica (Grezia) eta Sarajevoko (Bosnia) zinemaldietan saritua izen den lanarekin.

8. RETOUR À REIMS (FRAGMENTS) / RETURNING TO REIMS, Jean-Gabriel Périot (Frantzia, 2021) (80')

Urte batzuetan ZINEBIra etorri gabe egon ondoren, Jean-Gabriel Périotek (2015ean Bilbon *Une jeunesse allemande* aurkeztu zuenak) saiakera politikoa aurkeztuko du, Didier Eribonen eleberraren zinemarako egokitzapena oinarri hartuta, zeina Cannesko Zinemaldiaren aurreko edizioan estreinatu baitzen.

Adèle Haenel aktoreak (*Les combattants* filmagatik Césarra irabazi zuenak) interpretatutako testuaren bidez, berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik gaur egunera arte Frantziako langile klasearen istorio intimo eta politikoa kontatzen du artxiboe-tan.

9. SEARCHERS, Pacho Velez (AEB, 2021) (81')


Online hitzorduen munduak *Manakamana* (2013) eta *The Reagan Show* (2017) filmen zuzendariari harremanetarako modu berriei buruz hausnartzeko balio dio, eta teknologia berriek eskaintzen dituzten erraztasunek askotan nartzisismora edo larritasunera nola eramaten duten aztertzeko.

Sundance eta Visions du Réel (Suitza) aurkeztu ondoren, ZINEBIn Pacho Velez estatubatuarren azken filmaren Estatu mailako estreinaldia izango dugu.

10. SI PUDIERA DESEAR ALGO / IF I COULD WISH FOR SOMETHING, d Dora García (Belgika – Frantzia – Mexiko – Norvegia, 2021) (68')

2021. edizioan Espainiako Arte Plastikoen Saria jaso berri duen Dora García ZINEBIra itzuliko da bere dokumentalirik berriena Estatuan estreinatzeko. Dokumentala Friedrich Holländerrek 1930ean idatzi zuen *Wenn ich mir was wünschen dürfte* abestian inspiratuta dago. Abesti horren izenburuaren itzulpena da filmaren izenburua, zeinarekin García pentsamendu batera itzultzen den, beti kantu hori gogora ekarri izan diola baieztatuz. "Kontzeptu oso konplexu baten" adierazpen poetikoa dela dio: "emakumeen etsipena hazi besterik ez da egin aspaldian; iraultza garaian egindako hitza ez zen bete eta, aitzitik, atzeratu eta ukatu ere egin da; eta tristura, babesgabetasun sentimendu horretatik eratorritako zaurgarritasuna, aterpe bihurtu da, ezkutu, eta baita ezpata ere".

Si pudiera desear algo, argazki erakusketa bat ez ezik, ZINEBIk azken bost urteotan Mexiko Hirian izan diren manifestazio eta protesta feministei buruz estreinatuko duen filma ere bada.



Bertoko Begiradak. Miradas desde Euskadi

Aurreko edizioetan bezalaxe, ZINEBIren 63. edizioan ere euskal ekoizpen berrienekin konektatuta egongo gara, eta bereziki erreparatuko diegu lan horiei. Film horiek ezagutarazten eta zabaltzen laguntzearen, Jaialdiak sail honetan emango ditu, gure zuzendariek zein gai lantzen dituzten eta nola lantzen dituzten ikusteko.

Hasiera batean gure ingurune hurbiletik urrunekotzat har ditzakegun gaiak buruz Euskaditik eskain daitezkeen ikuspegi originalarekin hasi, edo euskal kulturaren eta historiaren eremuko berezko alderdiekin bukatu, sail honetan aurkeztuko diren 10 film luze dokumentalak eta 20 film laburrak, baita Sail Ofizialetako Film laburren Nazioarteko Lehiaketan sartutako zazpi euskal filmak ere, 2021. urte honek gure zinematografian eman duen uztaren sintesia dira.

> Film luzeak

1. BOCA CIEGA | Dokumentala

Itziar Leemans, Euskadi – Frantzia, 2020 (65')

Itziar Leemans zuzendari lapurtarrak Thomas Henriot margolari atipiko eta erradikalaren erretratua egiten du. Hamar urte baino gehiago daramatza Habanako kaleetan lanean. Bere lanek forma hartzen duten heinean, horietan bizi diren istorioak azaleratzen dira. Leemansek Kuba izan zuen ardatz *Parque Lenin* (Carlos Mignón-ekin batera zuzendutakoa, 2015) dokumentalean ere, eta ikuslea familia kubatar baten intimitatean murgiltzen du, Henrioten obra elikatzen duen lehengaia baita. Henriotentzat margo-tzea da munduaren parte izateko modu bakarra.

2. BOLANTE BATEN HISTORIA | Dokumentala

Iñaki Alforja & Iban Toledo, Euskadi, 2021 (90')

Bortxazko desagerpen bat gertatzen denean, amaitzen dena ez da bakarrik desagertu denaren bizitza; aitzitik, uretara botatako harri baten uhinak bezala, orbain emozional izugarria sortzen du familietan eta gizartean. 80ko hamarkadaren hasieran, José Miguel Etxeberria Álvarez, Naparra, Komando Autonomo Antikapitalistetakoa, desagerrarazi egin zuten. Komunikatu gurutzatuen, hainbat aldarrikapenen eta axolagabekeria judizialaren artean, bere senideak desagerpenari erantzun bat ematen saiatu ziren. Desagerpenetik berrogei urte baino gehiago igaro direnean, Eneko da anaiaren bilaketaren lekukoa hartu duena, urte gehiegi irekita daraman zauria ixteko.

3. BOST MINUTU | Dokumentala

Amaia Nerekan Umaran, Euskadi, 2021 (61')

ZINEBIk ZINEBI Networking-en bigarren edizioa, 2019koa, irabazi zuen proiektuak egindako filma estreinatuko du. Amaia Nerekanen dokumentalak sei urte bete berri dituen Aiurren istorioa kontatzen du. Gauero, amarekin, sukaldeko egutegiari begira, zenbatu egiten ditu aita, Endika, etxera itzultzeko falta diren egunak. Endika euskal preso da eta hamabost urte daramatza espetxe batean, etxetik 540 kilometrora. Aiurrek bi modutan baino ezin izan du berarekin hitz egin: hilean behingo bisitetan edo bost minutuko telefono-deien bidez. Baina iritsi da Aiurren aita etxera itzultzeko unea.

4. FANTASÍA | Dokumentala

Aitor Merino, Euskadi, 2020 (100')

Familia bat. Amets bat. Bidaia bat FANTASIA izeneko ontzian. Eta errealitate bat, non bertan ez daudenak etxeko hormak betetzen dituzten koadro eta argazkiekin ordezkatzeko baitira. Aitor Merino aktorea dokumentalen generora itzuli da Malagako Zinemaldiaren aurreko edizioan estreinatu zen bere bigarren film luze honetan (*Asier ETA biok*, 2013, egin ondoren).

5. O GEMER / THE MOANING | Dokumentala


Xabier Erkizia, Euskadi, 2021 (63')

Lesakako soinu-artista, musikari, ekoizle eta kazetaria kameraren atzean jarri da lehenengoz, soinua protagonista nagusi duen film experimental bat egiteko. Donostiako Zinemaldiaren aurreko edizioan aurkeztua, *O gemer* (2021) bidaia geografiko eta historikoa da, idi-gurdien soinu bitxian barrena: gure herrian gaur egun dagoen isiltasunetik hasi eta, hainbat urtez ikertzen aritu ondoren, Brasilgo erdialdean berriro agertu arte.

6. MATRIOSKAS, LAS NIÑAS DE LA GUERRA | Dokumentala

Helena Bengoetxea Guelbenzu, Euskadi – Frantzia, 2021 (74')

Teresa, Alicia, Araceli eta Julia laurogeita hamar urteko lau emakume dira, itxuraz arruntak, deserrotzeak eta erbesteak markatutako lau bizitza bikain ezkutatzen dituztenak: Espainiatik Errusiara eta, ondoren, Kubara joan ziren. Bere kasa hazitako emakumeak dira, beraien ibilbidearen heroiak; gosearen, hotzaren eta gerraren oroitzapenak etxe baten nostalgiarekin nahasten dira, inoiz harrera egin zien eta jada existitzen ez den etxearenarekin; horrekin batera agertzen dira ere ia ezagutzen ez duten lurralde baten urruntasuna eta, batzuentzat, amestu ez zuten herrialde baterako itzulera.



7. NORBERAREN GELA | Dokumentala**Ainhoa Urgoitia & Enrique Rey, Euskadi, 2021 (64')**

Zenbait argazkilarik proiektu propio bat egiteko enkargua jaso zuten, Eulalia de Abaituaren obrako argazki batean oinarrituz. Abaitua lehen emakume argazkilaria euskaldun eta bizkaitarra izan zen, aitzindaria 1900eko Bilbon. Horrela, elkarriketa bat ezartzen da bere obrarekin eta egilearen bizitzarekin, eta horrela, Abaituaren lana nolabait haienarekin lotuta dagoela jakiten dute.

8. ŠKOLA ZA SVE NAS / A SCHOOL FOR ALL OF US | Dokumentala**David Fernández Graña, Euskadi, 2021 (78')**

Bosnia eta Herzegovinako gerraren ondoren, 1995ean, nazioarteko komunitateak ikasketa-programa bereizi baten diseinua babestu zuen gatazkan inplikaturako talde etniko nagusi bakoitzarentzat: bosniarrentzat, serbiarrentzat eta kroaziarrentzat. 25 urte geroago, aldi baterako konponbidea gisa sortu zena, ikasleak sistematikoki bereizteko tresna bihurtu da. Bi dokumentalista euskaldun herrialdean zehar bidaiatzen dira, sistemari alternatiba bat eskainiko dioten irakasle eta ikastetxeen bila.

9. SHOOTING FOR MIRZA | Dokumentala**Juan Gautier, Euskadi / Bosnia-Herzegovina, 2021 (94')**


Mirza Delibašić, Europako saskibaloiaren mito bihurtu zen hirurogeita hamarrekoko hamarkadan eta Sarajevoko gerran bere herria geratu zen, hala nahi izan zuelako. Geratzea erabaki zuen, senideekin ihes egin beharrean. Horrela bihurtu zen haren herriaren ikur. Gaur, bere seme Danko haren legatuarekiko miresmenaren, haren itzalaren zamaren eta aita ez egoteak utzitako zauziaren artean dabil. Aitak heroi nazional gisa zuen irudia berreraikitze bidaiaaren ondorioz, Dankok berak aita gisa duen lekua ezagutuko du. Juan Gautierren (*Sanfermines 78* (2005) edo *Tánger gol* (2015) filmen zuzendaria, besteak beste) dokumental berria Valladolideko SEMINCIIn estreinatu zen.

10. EL TESORO DE BENITO | Dokumentala**Josi Sierra Orrantia, Euskadi, 2021 (83')**

Benito Ansolak, euskarazko zinemaren bultzatzaile eta Lekeitioko Euskal Zine Bileraren sortzaileak, bere ekoizpen garrantzitsuenen sekretuak kontatzen dizkio José Julián Bakedanori. Ansolak hogeitabat film independente ekoitzi zituen 20 urtean, gidoiak prestatzen zituen, antzezleak aukeratzen zituen, kokalekuen erabakiak hartzen zituen eta bere lanak muntatzen zituen, lehenik zeluloidean eta, geroago, bideoan. *Master-class* bat, euskarazko zinema amateurraren izen handienetako baten eskutik.

> Film laburrak

Bertoko Begiradak sailerako hautatutako 20 film laburren artean, 13k parte hartuko dute Cineclub FAS saria (2.000€) eskuratzeko lehian. Gainerako zazpi lanek lehiaketatik kanpo parte hartuko dute, **Bilbao Aurrera** 2020 eta 2021 udal planen barruan hiriaren ikus-entzunezko sustapenerako laguntzen irabazle izan baitziren.

1. BILBAO HIRI IBILTARIA | Animazioa**Jon Zurimendi, Euskadi, 2021 (3') [Lehiaketatik kanpo]****2. BILBAO MUGIMENDU ETENGABEA | Dokumentala****Lander Ibarretxe, Euskadi, 2021 (3') [Lehiaketatik kanpo]****3. LA CAÍDA DEL VENCEJO | Fikzioa****Gonzalo Quincoces, Euskadi, 2021 (13')****4. CHEF D'OEUVRE | Dokumentala****Carlos Portella Nunes, Euskadi - Frantzia, 2021 (29')****5. ¿CUÁLES SON NUESTRO AÑOS? | Dokumentala****Clara Rus, Euskadi, 2021 (20')****6. HARRIA ETA BIDEA | Dokumentala****Paula Gómez & Aitane Goñi Landa, Euskadi, 2021 (14') [Lehiaketatik kanpo]****7. HARRO | Dokumentala****Elena Moreira, Euskadi, 2021 (6') [Lehiaketatik kanpo]****8. HELTZEAR | Fikzioa****Mikel Gurrea, Euskadi, 2021 (18')**

9. **HIRI ZATIAK | Animazioa**
Guillermo Julián & Susana Fernández, Euskadi, 2021 (6') [Lehiaketatik kanpo]
10. **HIRIAN IBILTZEKO JARRAIBIDEAK | Dokumentala**
Hauazkena Taldea, Euskadi, 2021 (8') [Lehiaketatik kanpo]
11. **HORMAK | Fikzioa**
Mikel Uralde, Euskadi, 2021 (14')
12. **IRRUPTIONS AND INTERRUPTIONS | Dokumentala**
Igor Rezola, Euskadi, 2021 (16')
13. **LA QUE AMA | Dokumentala**
Itziar Orbegoza, Euskadi, 2021 (15')
14. **LANBROA | Dokumentala**
Ana Serna, Paula Iglesias & Maialen Oleaga, Euskadi, 2021 (17')
15. **MAMUAK | Dokumentala**
Lander Castro, Euskadi, 2021 (6') [Lehiaketatik kanpo]
16. **PARAÍSO | Dokumentala**
Marina Lameiro & Maddi Barber, Euskadi, 2021 (22')
17. **ROTOR | Dokumentala**
Ainara Elgoibar, Euskadi, 2021 (16')
18. **TOTAL SCREEN | Dokumentala**
Unai Aranzadi, Suedia – Euskadi, 2021 (24')
19. **TRUMOIAK | Fikzioa**
Iker Maguregi, Euskadi, 2021 (12')
20. **UNICORNIO | Fikzioa**
Irati Gorostidi, Euskadi, 2021 (17')

8. Focus: Mexiko, Emakumea eta Jatorrizko Zinemak

Azken edizioetan, ZINEBIk espazio bat eskaini dio mundu osoko emakumeek egindako zinemari. Egia da emakumeek zinematografiaren industrian izan duten rola eta lana oharkabea igaro direla urteetan zehar. Dena den, emakumeei buruz pantailan zabaldu den irudiak gizon eta emakumeen arteko botere-harremanean patentatu ditu, historikoki desberdintasunez josiak egon direnak eta, emakumeari sektorean leku bat eman beharrean, haren erretratatu azaleko, pobre eta osatugabea egin du.

ZINEBIren ekimen hau ikus-entzunezkoen arloko emakumeek antolatzen dute bere osotasunean, eta Yunuen Cuencak egiten du komisario lana. Ekimenaren helburua da emakume zuzendarien lana agerian jartzea, baina baita sektorea osatzen duten emakume guztiena ere. Emakume horien presentzia bistaratu nahi da, eztabaidatu nahi da, bai industrian, bai pantailan duen irudikapenaren inguruan; bere gaitasun profesionala aitortu nahi da, eta baita historian zehar izan duten parte-hartze aktiboa eta baldintzarik gabekoa ospatu ere.

2018an eta 2019an Irango eta Palestinako zinemagileei programa bana eskaini ondoren, aurten ZINEBIk *focus* berria aurkeztuko du: oraingoan, Mexikoko jatorrizko herrietako emakume zinemagileei eskainita egongo da.

Mexikoko Zinematografia Institutuarekin (IMCINE) lankidetzan —Mexikoko jatorrizko herrietako kideei laguntza handia eman baitie zinema ekoizten eta egiten duten hainbat programaren bidez—, eta Moreliako Nazioarteko Zinemaldiari (FICM) esker ona adierazteko —2007tik aurrera Herri indigenen foroaren saila programatu duen ekitaldia izanik eta duela bi urtetik hona Mexikoko emakume zinemagile indigenen Foroa egiten duen zinemaldia izanik—, ZINEBI honako film hauek ikusi ahal izango ditugu estreinako aldiz Euskadin:

1. **KOLTAVANEJ | Dokumentala**
Concepción Suárez Aguilar, Mexiko, 2013 (19')
2. **GUENATI'ZA / THOSE WHO COME TO VISIT US | Dokumentala**
Yolanda Cruz, Mexiko, 2003 (17')
3. **ME PAREZCO TANTO A TI | Dokumentala**
Luna Marán, Mexiko, 2011 (23')
4. **KII NCHE NDUTSA / TIME AND THE SEASHELL | Fikzioa**
Itandehui Jansen, Mexiko, 2020 (13')
5. **TÍO YIM | Dokumentala**
Luna Marán, Mexiko, 2019 (82')
6. **NUDO MIXTECO | Fikzioa**
Ángeles Cruz, Mexiko, 2021 (91')

ZINEBIk uste osoarekin berresten ditu María Novaro IMCINEren zuzendariak Mexikoko emakume zinemagile indigenen foroan esandako hitzak. Ahots eta begirada ugari: “zinemagilea, emakumea eta indigena bazterketarekin lotutako hiru hitz ziren, eta ez dugu berriz onartuko hori horrela izatea. Orain ez dira bazterketarekin lotutako hitzak, abangoardiarekin lotutakoak baizik”.

9. Emanaldi bereziak

Itxitik

ZINEBI *Itxitik* proiektuaren babesean ekoiztutako zazpi film laburrak aurkeztuko ditu bere programazioaren barruan. Film labur horiek Zineuskadik 2020an COVID-19ak behartutako konfinamenduaren gaia jorratzeko egindako deialdiaren ondorioz filmatu ziren.

Proiektua honako erakunde hauen lankidetzari esker egin ahal izan da: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Zineuskadi, ETB, Donostiako Zinemaldia eta ZINEBI. Proiektu honi esker, euren film laburrak filmatu ahal izan zituzten Euskadiko zinemagileak zortzi izan ziren: Iban del Campo, Borja Crespo, Imanol López de Segura, Kevin Iglesias, Pedro Rivero, Maider Oleaga, David Pérez Sañudo eta Mikel Rueda. *Itxitik*en aurkeztutako filmetatik bi (*Vatios*, David Pérez Sañudok zuzendutakoa, eta *Kinka*, Maider Oleagak zuzendutakoa) sartzen dira Sail Ofizialeko Film Laburren Nazioarteko Lehiaketan. Gainerako bostak jendeari zabalik egongo den emanaldi berezian aurkeztuko dira

1. **ETXEAN / HOME | Fikzioa**
Mikel Rueda, Euskadi, 2021 (18')
2. **HIKIKOMORI | Fikzioa**
Borja Crespo, Euskadi, 2021 (13')
3. **LOS DÍAS QUE (NUNCA) FUERON / IZAN (EZ) ZIREN EGUNAK | Animazioa**
Kevin Iglesias & Pedro Rivero, 2021 (11')
4. **SERENDIPIA | Fikzioa**
Iban del Campo, Euskadi, 2021 (16')
5. **TARTEA | Dokumentala**
Imanol López de Segura, Euskadi, 2021 (12')

Vulk ez da

Programazio bereziaren baitan, ZINEBIk diziplina anitzeko ikuskizun bat aurkeztu du, zuzeneko musika-emanaldien eta aurrez erregistratutako ikus-entzunezko materialaren arteko mugak lausotu nahi dituen, Vulk talde bilbotarraren autoaurkikuntza-eraketa baita. Proiektu hau, VULK EZ DA izenekoa, ez da formatu jakin batera mugatzen, eta hainbat bitartekoren bidez hedatzen da, Vulkan zuzeneko emanaldiaren eta musikaren beraren indarra ardatz egituratzailatzat hartuz.

Zinebi Meets Peloponnisos International Documentary Festival

2021ean zehar, Peloponesoko Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdiarekin elkarlanean aritu da ZINEBI; otsailean izan zen jaialdi horren 7. edizioa, *online*, eta euskal zinema garaikidea izan zen omendua. Euskal ekoizpeneko hiru film luze dokumental sartu zituzten jaialdiaren sail berezi batean: *Lurralde hotzak* (Iratxe Fresneda, 2019), *Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa* (Bertha Gaztelumendi, 2019) eta *Muga deitzen da pausoa* (Maider Oleaga, 2018).

Peloponesoko Jaialdiarekin elkarlanean jardutearen ondorioz, ZINEBIk Grezian egindako hiru film luze dokumental txertatu ditu FILMIN plataformaren bitartez eskaintzen duen *online* programan, Peloponesoko penintsulako hainbat herritan egiten den urteroko jaialdiak proposatuta.

1. **GABRIELA, THE GERMAN WITH THE BICYCLE | Dokumentala**
Dominikos Ignatiadis, Grezia, 2021 (95')
2. **HAPPY PRINCESS | Dokumentala**
Panos Deligiannis, Grezia, 2018 (82')
3. **A TREE REMEMBERS | Dokumentala**
Kostas Follas, Grezia, 2018 (88')



GO!AZEN 8.0

EITBren eskutik, *Go!azen* gazteentzako telesailaren 8.0 denboraldiaren aurrestreinaldia hartuko du ZINEBIk. Azaroaren 19an iritsiko da telesaila EITB Mediako euskarrietara.

Azaroaren 14an, Azkuna Zentroko Auditoriumak fenómeno transmedia horren zortzigarren denboraldiaren azken aurkezpena egingo du protagonista talde batekin (urrian Barakaldon eta Donostian egin zirenen ostean, Gasteizen urriaren 30ean eta Iruñeko Ba-luarten azaroaren 13an izango dira) eta pantailetara itzuliko da ETB1, eitb.eus eta Goazen APParen bidez.

10. Zinebi Meetings

- TOPAKETA ENRIQUE URBIZU ETA CARLOS ALBERTO GÓMEZEKIN

Carlos Alberto Gómezek eta Enrique Urbizu zinemagile bilbotarrak ZINEBIIn aurkeztuko dute *La caja de madera: Estudios sobre puesta en escena cinematográfica* liburukia, ECAMek (Madrilgo Erkidegoko Zinematografia eta Ikus-Entzunezkoen Eskolak) eta DAMAk argitaratukoa, *Caimán. Cuadernos de Cinerekin* lankidetzan, *Imprenta Dinámica* izeneko liburu bilduma berriaren barruan. Azkuna Zentroko Bastida Aretoan izango da, larunbatean, hilaren 13an, eta haiekin batera DAMAko ordezkari bat arituko da.

Bilduma bultzatzaileek aurkeztuko dute urriaren 27an Madrilgo Arte Ederretako Zirkuluan, eta bertan egongo dira Enrique Urbizu, Carlos Alberto Gómez eta Walter Murch idazle eta zinema-muntatzailea. Bildumaren barruan, besteak beste, Murchen *En el momento del parpadeo* klasikoaren berredizio zabaldu eta eguneratua argitaratuko da.

- TOPAKETA MARGARETHE VON TROTTA-REKIN

Aktore, gidolari eta zuzendari gisa duen ibilbidearen aitortza jaso du **Margarethe von Trotta**k ZINEBIren 63. edizioko Ohorezko Mikeldiarekin, eta topaketa bat egingo du **Helena Taberna** zuzendari nafarrarekin eta Bilboko ikusleriarekin Arte Ederren Museoko auditoriumean, hilaren 13an, larunbatean. Saio horretan, topaketa egiteaz gain, *Las hermanas alemanas (Die bleierne Zeit, 1981)* filma proiektatuko da. Film horrekin, von Trotta Veneziako Urrezko Lehoia lortu zuen lehen emakumezko zinemagilea izan zen.

- TOPAKETA MEXIKOKO EMAKUME ZINEMAGILEEKIN

Focus: Mexiko, emakumea eta jatorrizko zinemak programaren proiektzioak azaroaren 16tik 18ra bitartean izango dira Golem-Alhóndiga zinema aretoetan. Programa aurkezteko, topaketa bat egingo da Azkuna Zentroko Bastida Aretoan: moderatzaile lanetan, zikloaren komisario **Yunuen Cuenca** arituko da, eta bertan izango dira ere **Zenaida Pérez Gutiérrez** Emakume Indigenen Batzar Nazional Politikoko kidea, **Yásnaya Aguilar Gil** mixe hizkuntzalaria eta **Luna Marán, Concepción Suárez Aguilar** eta **Yolanda Cruz** zinemagileak.

- TOPAKETA MARTA POPIVODA-REKIN

Marta Popivoda zinemagile serbiarra ZINEBIra dator beste behin ere bere zinemari buruz hitz egiteko. Oraingo honetan, gurera etorriko da, jaialdian birtualki parte hartu beharrean (2020an hala behar zuen eta), *Landscapes of Resistance (Pejzaži otpora, 2021)* bere azken lana Euskadin aurkeztera. Aukera baliatuta, berriz ekingo dio **Miren Jaio, Leire Vergara** eta **Beatriz Caviarekin** itxi gabe utzi zuen elkarriketari, hau da, solaskide izango ditu Bilboko Solokoetxe auzoan dagoen **Bulegoa z/b** arte eta ezagutza bulegoaren sortzaileak. Topaketa igandean izango da, hilaren 14an, Arte Ederren Museoko auditoriumean.

- TOPAKETA DORA GARCÍAREKIN

Jatorriz Valladolidekoa den eta Bruselan bizi den **Dora García** artistak ZINEBI aukeratu du berriz ere (2018an *Segunda* vezekin bezala) bere azken ikus-entzunezko lana, *Si pudiera desear algo* (2021), Estatu mailan aurkezteko. Oraingoan, Bilbora etorriko da ikusleekin hitz egitera, hilaren 17an, asteazkenean, Arte Ederren Museoko auditoriumean.

- TOPAKETA IMANOL URIBEREKIN

Imanol Uribek, ZINEBI 63ko bigarren Ohorezko Mikeldiak, ibilbide luzea egin du zinematografiaren alorrean eta beti izan du bere garaiko errealitatearekiko konpromisoa. Ostegunean, hilaren 18an, *Llegaron de noche* (2022) izeneko bere hurrengo filmaren aurrerapen bat aurkeztuko du Arte Ederren Museoko auditoriumean; 70eko eta 80ko hamarkadetan ZINEBIIn egotea nolakoa izan zen gogoratuko du, orduan lortu baitzituen bere bi film laburren lehen aitortza publikoak, hain zuzen, *Ez* (1976) eta *Ikuska 13: Euskal kantagintza berria* (1982) film laburrena; eta bere zinemari buruz hitz egingo du bertaratzen direnekin, eta **Carlos Reviriego** Espainiako Filmategiko zuzendari laguntzaile eta programazio zuzendariarekin.

- EMAKUME KONPOSITORE EUSKALDUNEN TOPAKETA

2020an, CIMA emakume zinemagileen Elkartearen txostenaren arabera, geure industrian diharduten konpositoreen % 11 dira emakumeak. Kopuruak oso erritmo motelean ari dira hobera egiten, baina emakumezko konpositoreak gero eta ikusgaitasun handiagoa eta aintzatespen handiagoa lortzen hasi dira.



Jatorrizko Musika Onenaren Goya saria irabazi duten emakumeak bi baino ez dira izan: **Eva Gancedo** *La buena estrella* (Ricardo Franco, 1997) filmarengatik, eta **Aranzazu Calleja** eta **Maite Arroita** jauregi *Akelarre* rengatik (Pablo Agüero, 2021). Musikagile eta konpositore gazteentzat erreferenteak ikusgai jartzeko eta sortzeko asmoz, (H)emen elkarteak eta ZINEBIk topaketa bat antolatu dute hilaren 18an Azkuna Zentroko Bastida Aretoan. Bertan, **Aranzazu Calleja**z gain, **Paula Olazek, Nerea Alberdik, Vanessa Gardek** eta **Zeltia Montesek** parte hartuko dute.

11. Industry

- ZINEBI NETWORKING

ZINEBI63

Zinebi Networking 2021: Dokumentalen Sorgunea IV Foro Profesional de Cine Documental de Bilbao



ZINEBIk laugarren urtez jarraian antolatzen du *ZINEBI Networking: Dokumentalen sorgunea* zinema dokumentalaren foro profesionala, Bilbon, Bizkaian eta Euskadin ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko asmoz. Bertako talentuarentzako topagunea da, eta Euskal Produktoreen Elkartearekin (EPE-APV), Euskal Telebistarekin (ETB), Zineuskadirekin eta Europa Creativa Desk MEDIA Euskadirekin lankidetzan antolatzen da.

Parte hartu nahi zuten film luze dokumentalen proiektuak aurkezteko epea urriaren 21era arte egon zen zabalik. Azaroaren 16an *pitching* saio bat egongo da, proiektuak profesionalen aurrean aurkeztu ahal izateko. Profesional horiek topaketa horretarako berariaz izendatutako nazioarteko epaimahaikideak izango dira, eta *pitching*ean parte hartuko duten proiektuak profesionalek eta adituek osatutako hautaketa-batzorde batek aukeratuko ditu. Aurkezpenaren eguna baino lehen tutoretza pertsonalizatuak izango dituzte.

ZINEBI Networking: Dokumentalen sorgunearen saria Jaialdiaren itxiera galan banatuko da, azaroaren 19an, eta 10.000 eurokoa da.

- THE EUROPEAN PANORAMA OF DOCUMENTARY FILM FESTIVALS: WHAT WE ARE LOOKING FOR

Europa Creativa Desk MEDIA Euskadirekin (eta topaketan dauden herrialdeetako MEDIA bulegoekin) lankidetzan, ZINEBIk eztabaidatzeko eta hausnartzeko jardunaldi bat egingo du, pandemiaren ondoren Europako zinema dokumentaleko jaialdiek dituzten erronkei buruz. Bere erakundeetan neurri handiagoan edo txikiagoan jasan ondoren, azaroaren 15ean saio batean elkartuko dira *Cinéma du Réel* (Frantzia), *Doclisboa* (Portugal), *Ji.hlava IDFF* (Txekiar Errepublika), *DOK.Leipzig* (Alemania), *Punto de Vista* (Iruña) edo *FIPADOC* (Biarritz) zinemaldi prestigioetsuetako ordezkariak. Egungo egoerari buruz hitz egingo digute, premia propioak dituen zinema-industriaren atal batean duten eginkizunari buruz hausnartuko dute, eta gaur egun dokumentalen zuzendari, ekoizle, banatzaile eta erakusleek zer eskatzen duten aztertuko dute.

- ZINEMA ZUBIAK

IBAIA – Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte/Asociación de Productoras Audiovisuales Independientes del País Vascok, NAPAR Nafarroako Ekoizleen Elkartearekin eta ZUKUGAILUA – Akitania Berriko Ekoizleen Elkartearekin lankidetzan, ZINEMA ZUBIAK programa abian jarri du, eskualde horietako enpresen eta profesionalen arteko harremanak eta proiektuen garapena dinamizatzeko asmoz. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen laguntzarekin aurrera eramaten ari diren jardueren esparruan, ZINEBIk topaketa bat egingo du Azkuna Zentroko Bastida Aretoan, hiru erakunde laguntzaileetako ordezkariak.

Euroeskualdeko lurraldeen arteko koprodukzioa hiru proiektu aurkeztuko dira ZINEBIIn. Topaketan hizpide izango dituzte finantzaketari, koproduktoreen bilaketari, banaketari eta abarri dagokionez izandako esperientziak.

- AUKERA

Aukera 18 eta 35 urte bitarteko emakumei zuzendutako film laburren mentoreprograma bat da, ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeak gogoan izanda lan egiten duen (H)emen elkarteak sustatzen eta antolatzen duena, Zineuskadi, Kutxa Kultur eta ZINEBIrekin lankidetzan, besteak beste. Ikasketen ondoren profesionalizatzeko bidean, Aukerak ikus-entzunezkoen sektorean lan egin nahi duten emakumeak babestu eta ahaldu nahi ditu.

Azkuna Zentroko Bastida Aretoan, azaroaren 18an, Aukera-ren lehenengo edizio honetan garatutako proiektuen *pitching* saio publikoa egingo da. Epaimahaikide lanetan arituko dira Miren Aperribai (Atera Films), Zuri Goikoetxea (Doxa Producciones) eta Gentzane Martínez de Osaba (Marmoka Films) ekoizleak.

Lehiaketa hau irabazten duen proiektua ZINEBIren Itxiera Galan jakinaraziko da, hilaren 19an, Arriaga Antzokian.

12. Egoitzak

Teatro Arriaga Antzokia

(Arriaga Plaza 1)

Azaroak 12 Inaugurazioa | 19:30ean

Sarrera: 6 €

Azaroak 19 Itxiera | 19:30ean

Sarrera: 6 €

Azaroak 20 ZINEBI 63ko Garaileen zerrenda Ofizialaren Errepikapena | 18:00etan

Sarrera: 6 €

Golem Bilbao eta AZ Auditorioa

(Arrikibar plaza 4)

Sarrera: 4,50 €

10 saioko bonua 35 €

ZINEBIk bonu bereziak emango ditu langabetuentzat, erretiratuentzat (eta 60 urtetik gorakoentzat) eta 26 urtetik beherako ikasle eta gazteentzat, 20 eurotan.

Bilboko Arte Ederren Museoa

(Museo Plaza 2)

Sarrera: 3,50 €

BBK Aretoa

(Don Diego López Haroko Kale Nagusia 19-21)

Sarrera: 3 €



Antolatzaileak



Babesleak



Con la financiación
del GOBIERNO DE ESPAÑA:



Laguntzaileak

